



## Aurkeztu beharreko agiriak

### TXIRRINDULARI IBILALDIAK

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Proba antolatze baimena, dagokion kirol-federazioak egin, holan eskatzen duenean kirol arloko araudiak.
- Probaren txostena: probaren izena eta txapelketaren ordena kronologikoa, probaren araudia, ibilbidearen krokis zehatza (data, ibilbidea, profila, pasaerako ordutegia, batez besteko abiadura), antolakuntzaren arduradunen (zuzendari betearazlea eta bide-segurtasuneko arduraduna) identifikazioa eta gidatzeko lizentzia edo baimena), gutxi gorabeherako parte-hartzaile kopurua, seinaleztatzeko neurrien proposamena eta aurrez ikusitako segurtasun-gailuak.
- Probako parte-hartzaile guztiak estaldurapean hartuko dituzten istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu izanaren egiaztagiria.
- Parte-hartzaile guztiei laguntza medikoa emateko gutxieneko osasun-zerbitzuak (medikua eta anbulantzia) izatearen egiaztagiria.